

Familia agurgarriak,

Poztasun handiz komunikatzen dizuegu kurtso honetan Aramark izango dela zuen eskolako jantokiaren kudeatzailea. Gure enpresak, *Aramark Servicios de Catering*, 35 urte baino gehio darama Nafarroan errotuta zentru publiko zein pribatu desberdinetan.

Zuen eskola jantokian emango dugun zerbitzuaren nondik norakoak hurrengoak dira:

- Nafarroako Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen betebeharrak egokitzen gara. Pleguak menuak egiteko baldintzak ezartzen ditu eta, horien arabera, gure dietista-nutrizionistek hilabeteko menuak prestatzen dituzte. Azkenik, zerbitzatu aurretik, Nafar Gobernuako dietistak berrikusten ditu.
- Zerbitzuaren jarraipen estua egingo dugu funtzionamendu egokia bermatzeko.
- AKKPA sistema zorrotz bat ezartzen dugu jantoki zerbitzuaren elikagai-segurtasuna eta higie ezinhobea bermatzeko.
- Jantokian giro atsegina eta gune hezitzaile bat sortzeko konpromezu sendoa daukagu. Bizi ohitura osasungarriak, praktika higieniko egokiak eta portaera arauen garrantzia azpimarratzeko aukera ezinhobea da bazkaria, betiere haurrentzako interesgarriak suertatzen diren jardueren bitartez.
- Kalitate handiko produktu freskoak erabiltzen ditugu, tokian tokiko hornitzaileenak eta produktu ekologikoak maiztasun handiz sartuz.
- Gure errezetak eta sukaldatze-metodoak anitzak dira eta tokian tokiko ohitura gastronomikoekin bat datoz. Gure helburua ikasleen partetik menu eta elikagai guztien onartze-maila altuena lortzea da, bereziki gehien kostatzen zaizkien platerrenak (hala nola, barazkiak eta arraina).

The logo for "el gusto de crecer" (The Taste of Growing), with the text in a bold, orange, lowercase sans-serif font.

Ongi etorri gure komunitate digitalera! Gure webgune www.elgustodecrecer.es eta doako aplikazioaren bitartez ("El Gusto de Crecer"), etxean ohitura osasungarriak mantentzen lagunduko dizueten material desberdinak izango dituzue: etxeko eta eskolako otorduak koordinatzeko baliabide ezinhobea

Zuen esanetara gaude,

Agur bero bat,

ARAMARK